

URTE
25
AÑOS

N.º 99. zkia
2023 Udazkena

albaitaritza

Erreferente robotizatua

Armoki Familia Kooperatiba Txikia.
Lukiano, Araba



PRID® DELTA

*camino a
la fertilidad*



reproAction™

Reproductive management in Action



PRID®DELTA 1.55 g SISTEMA DE LIBERACIÓN VAGINAL PARA BOVINO. Progesterona en dispositivo intravaginal. Composición por dispositivo: Progesterona 1,55 g. **INDICACIONES DE USO:** Para el control del ciclo estral en vacas y novillas incluyendo: Sincronización del celo en hembras cíclicas, para ser usado en combinación con una prostaglandina (PGF₂). Inducción y sincronización del celo en hembras no cíclicas, para ser usado en combinación con una prostaglandina y gonadotropina coriónica equina. **Contraindicaciones:** no utilizar en hembras gestantes. No utilizar en novillas sexualmente inmaduras o en hembras con tracto genital anómalo, por ejemplo freemartins. No utilizar antes de que hayan pasado 35 días desde la fecha del parto anterior. No utilizar en animales que presenten infección o enfermedad no infecciosa del tracto genital. **REACCIONES ADVERSAS (FRECUENCIA Y GRAVEDAD):** Durante los siete días de tratamiento, el dispositivo puede inducir una reacción local suave (es decir inflamación de la pared vaginal) resultando en una secreción vulvar turbia o viscosa en el momento de la retirada del dispositivo. Esta reacción local desaparece rápidamente sin ningún tratamiento entre la retirada y la inseminación y no afecta a la fertilidad en la inseminación ni a las tasas de gestación. **USO DURANTE LA GESTACIÓN Y LA LACTANCIA:** Puede utilizarse durante la lactación. Estudios de laboratorio en ratas y conejos, tras administración de dosis elevadas y repetidas de progesterona, por vía intramuscular o subcutánea, han evidenciado efectos tóxicos para el feto. El uso del medicamento está contraindicado en hembras gestantes. **POSOLÓGIA Y VÍA DE ADMINISTRACIÓN:** Uso vaginal. 1,55 g de progesterona durante 7 días. Con la ayuda de un aplicador, insertar un dispositivo en la vagina del animal. El dispositivo intravaginal deberá permanecer colocado durante 7 días. En hembras cíclicas, el dispositivo debe ser utilizado en combinación con una prostaglandina, inyectada 24 horas antes de extraer el dispositivo. En hembras no cíclicas, debe administrarse una inyección de PGF₂ 24 horas antes de extraer el dispositivo y una inyección de eCG en el momento de la extracción. Los animales deben ser inseminados 56 horas después de la retirada del dispositivo. El dispositivo está destinado a un único uso. **Tiempo de espera:** Carne: 0 días. Leche: 0 días. **Presentación:** Caja de cartón conteniendo 10 sobres con 1 dispositivo. Caja de cartón conteniendo 100 sobres con 1 dispositivo. Medicamento sujeto a prescripción veterinaria. Reg. N.º 2134 ESP.

Ceva Salud Animal S.A. - www.reproduction.com/es - ceva.salud-animal@ceva.com - Carabela La Niña, 12, 3ª Planta - 08017 Barcelona - Tel.: 932 92 00 66



Roberto, Javier, Gaizka eta Endika Landa elkarrizketa. ARMOKI familia kooperatiba txikia da.

Robotizatuta,
lanaldi intentsiborantz

4.or



Andrea Passerini elkarrizketa

Esne litroa 0,15 €-an
ari gara saltzen

28.or



Artikulu teknikoa

Kontuz
oritzarekin

32.or



Nº 99. Zkia
2023 Udazkena

albaitaritza

Editatzen du: ALBAITARITZA, S.A. **Zuzendaritza:** Gaizka Aranguren **Aldizkariko edukientzako harremanak:** revista@albaitaritza.com **Erredakzioa eta argazkigintza:** Labrit Multimedia S.L., Albaitaritza S.A., Albaikide S.A., Iñako Redín y Oroitz Zabala, Freepik. **Erredakzio kontseilua:** Gaizka Aranguren, Javier Zabala, Julen Huarte, Joxe Etxezurieta, Juan Manuel Loste, Oroitz Zabala. **Maketazioa:** Labrit Multimedia **Publizitatea:** Albaitaritza S.A. · revista@albaitaritza.com · (34) 948 50 03 43 **Tirada:** 6.242 kopia **Banaketa:** Albaitaritza S.A. eta Albaikide S.A.-ren bezeroei dohainik posta arruntze; Albaitaritzaren sare komertzialean doakoa. Albaitaritza S.A. enpresa editore gisa, Labrit Multimedia, S.L. enpresa ekoizle gisa, eta aldizkariaren erredakzio-kontseilua ez dira nahitaez identifikatzen bertan argitaratzen diren artikuluen egileek adierazitako iritziekin; egileak dira artikuluen horien arduradunak ondorio guztietarako. **DL NA** 0070-1999

ELKARRIZKETA

“

[.] Roberto, Javier, Gaizka eta Endika Landa. ARMOKI familia kooperatiba txikia da.

Roberto, Javier, Gaizka eta Endika Landa elkarrizketa. ARMOKI familia kooperatiba txikia da.

ARMOKI familia kooperatiba txikia da, erreferentziazkoa alderdi askotan. Jezte robotizatua aukeratu zuen Arabako lehen etxaldea izan zen, 2003. urtean. Bere ekoizpenaren eta antolaketaren efizientzia maila batez bestekoaren gainetik daude eta belaunaldi berriei aukera eman die jarraikortasunaren aldeko apustua eginez. Instalazio berriari ekin dio aurten, gazteek behar duten konfiantzarekin aurre egiteko aukera izan dute irizpide oso argiekin. Roberto eta Javi Landak, Endika eta Gaizka Landaren aita eta osaba, belaunaldi gazteari utzi diote kooperatibaren agintea hartzen.

Robotizatuta, lanaldi intentsiborantz

Robotaren aitzindari

Abeltzainen zenbat belaunaldi etxean?

ROBERTO: Bost. Santiago, Ciríaco, Jesús, gurea laugarrena eta hauena bosgarrena.

Noiztik esnetarako behien dedikazio eksklusiboarekin?

ROBERTO: Jesúsek, gure aitak, haragitakoak eta esnetakoak zituena oraindik.

JAVI: Eta, gainera, lantegian egin zuen lan.

ROBERTO: 1987an egin genituen esne ekoizpenean buru-belarri aritzeko lehen lanak. 50 behirentzako pabiloia zen. Gero eraldatzen joan zen, 120 behi hartzeraino, 2 robotekin.

Duela 20 urte hasi zineten robotarekin?

ROBERTO: Bai, 2003an.

Zergatik erabaki zenuten robotarekin lan egitea hain goiz?

ROBERTO: Garai hartan 40 urte inguru genituen eta, adin horretan, berrikuntza eta aurrerapenekin egon nahi duzu. Ziurgabetasuna handia bazen ere, ideia horrek konbentzitu gintuen. Egia da orain jezte robotizatua ondo probatuta dagoela, baina duela 20 urte oso gutxi genekien.

JAVI: Orduan ez zegoen orain dagoen zerbitzu teknikoa.

ROBERTO: Orduan, Lely agertu zen, ibilbide laburrekin; izan ere, hasieran, nekazaritzako makinaren enpresa zen. Gero ikusi da besteak ez direla gai izan hauek egiten dutena egiteko.

Eta zergatik Lely 2003tik?

ROBERTO: Etxeberrin [Nafarroako etxalde robotizatua] eta Gipuzkoan ikusi genituelako. Beste leku batzuetan jarri zituzten beste marka batzuekin alderatu genituen eta beste marka horiek zalantza gehiago sortu zizkiguten.

Lely etxeko bi A2 jarri zenituzten

ROBERTO: Bai, bi jarri genituen, 2003tik 2015era jezten aritu zirenak.

Eta gero, bi A4 jarri zenituzten?

ROBERTO: Bai, orain hemen daude, pabiloi berriaren erdian. Zazpi edo zortzi urte zeramatzen bi A4 horiei bi A5 gehitu dizkiegu hemen.

Zein izan zen jezteko makinatik robotera pasatzeko arrazoia nagusia?

JAVI: Beste batzuen artean, eskulana. Ezin genuen jenderik aurkitu lanerako. Zaila zen edo, agian, gu ginen zailak! **[Barreak].**

ROBERTO: Jezte lanean aurrerapena zirudien.

ENDIKA: Baina hasieran sufritu egin zenuten.

ROBERTO: Ez zegoelako orain dagoen esperientziarik. Nire ustez, orain egokitzapena ez da guk egin genuena bezain traumatikoa eta makinak asko hobetu dira.

Zertan nabaritu duzue gehien hobekuntza?

ROBERTO Y JAVI: Laserrean.

ROBERTO: Hasieratik ikusi genuen behiek denbora gutxian egin zutela hobera. Bai ekoizpean eta bai ongizatean.

20 urteko perspektibarekin... Asmatu al zenuten?

JAVI: : Bai, noski!

ROBERTO: Nik baietz uste dut.

Ikusitakoa ikusita, 10 urte geroago egingo zenuten?

ROBERTO: Norbaitek frogatu behar zuen!

Berriz jertziko al zenuke jezteko salan?

JAVI: Nik ez.

ROBERTO: Nik egun batzuetan, bai. Izan ere, 12 edo 13 orduz betetako errape horiek ikustea...

USTIATEGIAREN FITXA

ARMOKI Kooperatiba Sozietate Txikia

Instalazio zaharretako jezteko pabiloian haztea: txahalak eta bigantxak 22 hilabete bete arte.

4.000 m²-ko pabiloia. 12 metroko altuera gailurrean eta 4,5 metrokoa hegalean; lau alboetatik irekita

Hareazko 195 kubikulu.

215 behi jezten.

Lehentxen lote bat, bigarrenez erditutako bakarren batekin eta beste lote bat helduekin.

Erditu aurreko lote txiki bat, erditu osteko beste bat eta susaldietarako eta tratamenduetarako beste eremu batzuk. Bi banantze eremu roboten atzean. Lehenengoak, erditu osteko behientzako lastozko ohea du eta bigarrenak susaldian edo tratamenduan dauden behientzako kubikuluak. Banantze eremuaren ondoan hankaleku bat ere badute.

Ia 400 buru guztira.

Adartokirik (kornadizarik) gabeko pabiloia.

Kubikuluak harearekin.

5 milioi litroko minda putzua.

Korridoreen garbiketa arrodarekin.

Lely Juno janari bilgailua.

Finkak: 110 hektarea. 55 hektarea arto eta gainerako belardiak siloratzeko edo xehatzeko, premien arabera. Artoa egiten den tokian llolobelarra ekoizten da gero.

EKOIZPENEA

Esnealdia hastea, multiparoak puntako lau jertzaldi baino gehiagorekin.

Ekoizpen ikaragarria da, esnealdiaren oso maila altuarekin eta iraunkortasun oso eutsiarekin.

44 litro behi/eguneko.

2.375 litro roboteko egunean.

Hala ere, robotek denboraren %18 libre dute. 55 behi roboteko.

Soldoak: 3,72 koipetan eta 3,14 proteinatan.

Eta zer diote gazteek?

ENDIKA: Makina hauek askatasun handia ematen dizute.

ROBERTO: Hemen ez zara inoiz mugitzen jezteko sala batean mugitu behar den erritmoan. Robotak ditugunetik gizenago gaude [Algarak]. Egia da, jezteko salan arin mugitu behar duzu, ezin zara lo egon. Ipurdia mugitu behar da!

Jezte robotizatua fisikoki arinago da, baina mentalki estresagarriagoa?

ENDIKA: Deitzen dizun egunean edo bakteriologiako lagin bat gaizki ateratzen den egunean edo oso egun kargatuak dituzunean... 1 Formulako boxak bezalakoa da: ez duzu nahi inoiz gelditu daitezela edo ahalik eta gutxien gelditzea nahi duzu.



«Robotera egokitzea: Ganaduari denbora pixka bat gehiago uzten badiozu, errazago egiten da»

Trantsizio garaian, jezteko salatik robotera pasatzean, zer izan zen gogorrago, behien egokitzapena ala zuena?

ROBERTO: Nik uste dut guk estres handiagoa izan genuela. Gero konturatzen zara ganaduari denbora pixka bat gehiago uzten badiozu errazago egiten dela.

Oso drastikoa izan al zen?

ROBERTO: Bai. Goizeko hamarretan robotetik pasatzen hasi ziren, inoiz ikusi ez zuten arren.

Jende askok du buruan egokitzapen hori egitea. Zer esango zenieke?

ROBERTO: Nik uste dut orain oso erraza dela. Garai hartan ez horrenbeste.

Mastatest

TAN EFICAZ QUE INCLUSO TRABAJA LOS FINES DE SEMANA

Una solución única que identifica patógenos en leche

24H



Identificación bacteriana y sensibilidad antibiótica en 24h



Lectura y envío de resultados de forma automática en tu correo electrónico



En clínica o en granja, tú decides



Terapia selectiva adaptada a mastitis leves y moderadas

ACHIEVE BETTER MILK TOGETHER

vetoquinol
ACHIEVE MORE TOGETHER

GA736

Lelyk hogei urte baino gehiagoko esperientzia du, munduan aurrenetakoak izan ziren; zerkusia izango du horrek...

ROBERTO: Seguru. Lelyren esperientzia ukazina da. Etxeberri [Nafarroako esne ustiapena] duela 22 urte inguru hasi zen. Dena den, egokitzapenari ez zaio beldurrik izan behar.

GAIZKA: Egia da ondo pentsatu behar dela robotak pabiloian nola eta non jarri.

ENDIKA: Oso ondo pentsatu behar da. Oso garrantzitsua da. Baita pabiloia roboten arabera nola eraiki pentsatzea ere.

ROBERTO: Jartzen dituzu 200 behi robotekin eta, hiru hilabete barru, % 90 beste ezer ezagutuko ez balu bezala ibiltzen da.

«Ondo pentsatu behar da robotak nola eta non jarri»

JAVI: Esne gutxirekin harrapatzen dituzun behiak ez dituzu ohituko.

**Ikusten da robotak esnealdia-
ren bukaeran harrapatzen di-
tuen behien egokitzapena oso
txarra dela. Batzuk antzutzea
komeni izaten da.**

JAVI: Esne gutxi dutenei kostatzen zaie gehien jeztera joatea, baita hemen ere.

GAIZKA: Balitekeelako egunean bi aldiz jeztea behar ez duen behia izatea. 13 ordurekin ikusten da. Uzten duzu eta hurrengo goizean ez duzu berriro pantailan ikusten.

Zer moduzkoa da Lelyren zerbitzu teknikoa?

GAIZKA: Asko, 2 urte edo.

ROBERTO: Endikak eta Gaizkak asko dakite robotari buruz. Horrek lagundu egiten du.

ENDIKA: Edonork jakin dezakeena dakigu. Ez da espazio ontzi bat ere.

Hala ematen du!

GAIZKA: Ez zaio beldurrik izan behar. Ez da asko gustatzen zai-
gulako... Botoiak ukitzea da.





Buru harrapagailurik gabeko pabiloia

Noiz erabaki zenuten beste pabiloi bat egin behar zenutela?

GAIZKA: Endikak eta biok etxaldean lanean geratuko ginela erabaki genuenean. Ni 2018an sartu nintzen.

Zergatik aukeratu zenuten harrapagailurik gabeko pabiloi bat?

ENDIKA: Nonbait ikusi genuen eta gustatu egin zitzaigun. Azkenean ondo moldatu ginen.

Eta ugalketa kontrolatzeko, txertoak jartzeko... ez al du arazorik sortzen?

ENDIKA: Ez, egia esan, loteka banatzen ditugu eta, batzuetan, denbora gehiago behar badugu ere, ondo ari gara.

ROBERTO: Argi dagoena da behia gusturago dagoela horrela, harrapagailurik gabe.

GAIZKA: Eta ez dago zaratarik

ROBERTO: Elkarrri enbarazu egiten badiote ez dituzte kolpe horiek ematen burdinen kontra...

Ekoizpen pabiloia

Zergatik harea kubikuluetan?

ENDIKA: Buelta asko eman genizkion kontu horri. Oso erreta geunden pabiloi zaharretan, *klebsiellak* eragindako mamitisa genuelako eta behi asko hiltzen zitzaizkigulako. Zalantza genuen konpostaren eta harearen artean eta harea aukeratu genuen konpostak beldur pixka bat ematen digulako, azkenean konposta erabiltzen bukatuko dugula uste dudana arren.

Harearekin ez al duzue kudeatzeko arazo gehiago gero, putzuan?

GAIZKA: Oraindik ez dugu kudeatu.

ENDIKA: Gozatzen ari gara zein ondo doakigun ikusita.

Arazoak sortzen hasi zaizkizue?

ENDIKA: Arrobaderen kableak eten, hustubide bat buxatu... Gauza horiek.

Baina zenbat mamitis tratatu dituzue urtariletik?

ENDIKA: Tratatu, batere ez. Bospa sei mamitis egongo ziren. Behiak pare bat egun txar igarotzen ditu eta gaingitu egiten du.

«Seguru konpostean bukatuko dugula»

Zenbat harea gastatzen duzue?

GAIZKA: 25 tona 10-12 egunean.

10 kilo behi bakoitzeko egunean?

ROBERTO: Horrela gehiago ematen du. [Barreak].

ENDIKA: Horrela esanda beldurra ematen du. Seguru konpostean bukatuko dugula.

GAIZKA: Baina robotengatik ematen digu beldurra.

ROBERTO: Gainera, harearen kontua egunean behin konponitzen duzu, oso erraz.

ENDIKA: Egia da. Goizean eskua-rearekin eskuz lisatzen dugu kubikulu bakoitza, baina arratsaldean ez ditugu ukitzen. Gainera, konposta jartzen badugu, hamar egunean behin baino sarriago bota beharko genuke.

Landa eta elikadura

Bi mozketa egiten al dituzue be-lardietan?

GAIZKA: Bai. Eta batzuetan zuzenean aprobetxatzen dugu, kanpora ateratzen ditugun bigantxa ernariekin.

Zeuen burua hornitzen al duzue?

ENDIKA: Oraindik oreka bilatzen ari gara. 50 behi hazi ditugu urte erdian eta neurria hartu behar diogu.

Zer anoa egiten dituzue?

ENDIKA: Honako hau da ohikoa: 18,5 kilo arto, 21 kilo siloko llo-llobelar, 6,6 kilo pentsu eta etxe-ko 1,5 kilo belar ondu.

GAIZKA: Eta 7 kilo pentsu robotean.

Nork egiten dizue zerbitzu klini-ko eta ugalketa zerbitzua?

ENDIKA: Hori da. Jorge Eseberri etortzen da [Albaikide Esne Kalitatearen Zerbitzuko albaitaria]. Eta nutrizio zerbitzuaz Kairuko Iñigo Elia arduratzen da. 25 urte daramagu haiekin.



→ Armoki-n haien arto propioa landatzen dute.

*Estudio realizado en más de 30 robots de alimentación Lely Vector en Francia.

Con el robot de
alimentación Lely Vector,
los ganaderos
ahorran de media
4372 litros de gasoil
y 547 horas de trabajo
por año

***Lely Vector, la solución
fiable, flexible y barata
para la alimentación
de vuestro rebaño***

*Para más información
contacte con el 34 676 18 23 49*



   www.lely.com

Egun bat ARMOKIn

ROBERTO: Ni, normalean, goian geratzen naiz, herrian, bigantekin, gosaltzeko ordura arte.

ENDIKA: Ekoizpen pabiloira 06:15ean etorri ohi gara Gaizka eta biok. Ni hemen ditugun txahal txikiekin hasten naiz eta ordenagailuko datuak, tratamenduak eta intseminazioak erreparasatzen ditut. 07:00etarako Javi etortzen da eta normalean janari-orga prestatzen du.

GAIZKA: Nik, 07:00etan Javi etortzen denerako, atzerapenak pasatuta izaten ditut, bidegurutze-ko patioak garbituta, ordenagailuari begiratu ematen diot eta baita erditu berriei ere.

ENDIKA: Javik janaria nahastea amaitzen duenean, Gaizka eta bien artean konpontzen dituzte 200 kubikuluak. Ordu erdi behar izaten dute.

GAIZKA: Behiak jatera jaikitzen direla aprobeztatzen dugu kubikuluetan eskuarea pasatzeko.

ENDIKA: Denok batera bukatzen dugu, 08:30ean edo 09:00etan, eta gosaltzera joaten gara.

ROBERTO: Egunaren gainerakoan, ekoizpen-pabiloiarekin lotura zuzenik ez duten lanak egiten ditugu, testuinguruarekin edo mantentze lanekin lotutakoak: hondatu den zerbait konpondu, robotetan egin beharreko zerbait, txertoa jarri, siloetatik plastikoak kendu, zakuak kendu, behiak atera eta beste leku batera eraman...

GAIZKA: Astean bizpahiru egunetan robotak garbitu behar izaten dira, goizerdian. Ordu eta erdi edo bi ordu aldiko.

Eta kanpoko lanak?

ENDIKA: Traktoreekin gehien ibiltzen direnak Javi eta Gaizka dira, baina gero eta gehiago lan egiten dugu zerbitzu-enpresekin. Gero eta gehiago eraiten dugu eta ez gara iristen. 130 behi genituenean geunden berberak gaude eta, lana askoz erosoagoa bada ere, ganadu gehiago dago...

Arratsaldean?

ENDIKA: 16:00etan edo 16:30ean etortzen gara, berriro janari-orga prestatu eta beste batek atzerapenak sartzen ditu. Arratsaldez hiru lagun egoten gara baina biren artean dena egin daiteke. Negura begira, arratsaldeko orga eguerdian prestatzea pentsatu dugu, bazkaltzera joan aurretik, eta horrela...

Lanaldi intentsiboa?

ENDIKA: Tira, pentsatuta daukagu arratsaldean ahalik eta gutxien egitea

JAVI: Funtzionarioak izan nahi dugu. [Barreak].

ROBERTO: Ikusi egin behar. Urtarrilean hasi ginen pabiloi honekin eta gauza asko gertatu dira. Honek finkatu egin behar du.

ENDIKA: Ez dugu gozatu. Ea udazkenean pixka bat normalizatzen den.

Jaiegunak eta oporrak?

ENDIKA: Asteburuetan bik lan egin eta beste bik libratu. Udan bi aste hartzen ditugu bakoitzak. Tira... Pixka bat haserretu behar izaten da horiekin bi aste horiek har ditzaten [sadinokoak seinalatuz].

Gazte hauek zuek horien adinean baino lan gutxiago egiten al dute?

ROBERTO: Egun, arratsaldeko seieta joaten gara. Ez da inor geratzen.

ENDIKA: Sei eta erdietan.

ROBERTO: Bai, eta batzuetan zazpietan. Baina galdetu zenbat abeltzainek alde egin dezaketen ukuitatik hurrengo egunera arte.

Negu eta uda?

ROBERTO: Bai. Eguneroko lanari dagokionez, bai. Egun batzuetan salbuespenak egon daitezke, noski.



Roboteko behi-kopurua handitu egingo al duzue?

ROBERTO: Nik uste dut pabiloi hau bere ekoizpen ahalmenaren %75-%80an dagoela. Orain 9.500 kilotan gaude eta 12.000ra hel liteke. Pabiloi hau eraiki aurretik roboteko 3.000 kilo ateratzera iritsi ginen.

ENDIKA: Esne hori ateratzeko ia beste robot bat jarri behar duzu. Denbora gehiago eskaini beharko litzaieke atzerapenei. Beste kontu bat da. Hemen, seguruenik, behiren bat edo beste gehiago jertziko dugu, baina uste dut ez garela erotu behar. 10 edo 15 behi gehiago jertzeko behien eta gure ongizatea galtzea ekarriko luke.

«10 behi
gehiago
jertzeko behien
ongizatea eta
gure ongizatea
galtzea
ekarriko luke»

Badirudi bizkor ari zaretela robotak amortizatzen

ROBERTO: Ondo maneiatzen baduzu, makina hau bizkor amortizatzen da.

ENDIKA: Baina ez gaitzen nahastu. Robot bat ondo maneiatzeak ez du esan nahi 67 behiri 45na litro jertzeko. 63 behi jertzeko hobeto funtzionatzen duzu zuk eta behiek ere bai, eta ez du esan nahi robotak polikiago amortizatzen duzunik, izan ere, pertsona bat gehiago jarri behar duzu, beste gauza batera ez zarelako iristen robotarekin ari zarelako.



Genetika

Genotipatzen ari zarete

ENDIKA: Bai. Oraingoz, bigantxa guztien genotipoa zehaztu dugu Albaitaritzan Genetics-ekin AEBn.

Zer hautaketa irizpiderekin?

ENDIKA: Esnea eta Meritu Garbia.

Eta behiak?

ENDIKA: Ez dute genotipoa zehaztuta balio amerikarretan. Miren Sagarzazuk Meritu Garbiaren indize amerikarren antzekoa egin zuen Albaitaritzan Genetics-en hemen ditugun datuekin, hazteko behiak Meritu Garbi horren arabera hautatu ahal izateko.

Jetztearekin zerikusia duen hautaketa irizpiderik ba al duzue?

GAIZKA: Abiadura..

ENDIKA: Titiburuak elkartzeko joeraren arazoa ere badugu eta hori zuzentzen joan behar dugu.

Hamaika erditze eta 160.000 litro baino gehiagoko behia.

ARMOKI Kooperatibako 234 zenbakiduna behi berezia da. Gure bisita egunean (irailak 11), 160.000 litro baino gehiago zituen emanda 11 erditzeren ondoren.

Bere garaian 86 puntu eman zizkioten, baina behi berezia da, batez ere bere meritu garbiagatik.

Bitxiena da 11. erditzea baino 76 egun geroago, egunean 60 litro ematen dituela, hiru titibururekin bakarrik.

Hainbat alaba eta biloba izan ditu, baina bera bezalakorik ez.

Edoskitzeko makina

Albaitaritzak merkaturatutako edoskitzeko makinaren alde apustu egin duzue. Zergatik?

GAIZKA: Taldeko hazkuntza bazetorrela eta guri ere horrek denbora asko aurrezten zigula ari ginen ikusten. Izan ere, boxetan hazteak lanordu asko eskatzen ditu esnea nahasten, kuboak garbitzen, boxak garbitzen...

Noiztik dago martxan?

ENDIKA: Joan den otsailaren erditik.

Zer moduz?

ENDIKA: Eskerrak jarri genuen. Boxak garbitzeko denbora gehituta, ia hiru lanordu kendu ditugu egunean.

Edonori aholkatuko al zenioke?

ENDIKA: Bai, baina oso garrantzitsua da non jartzen den edoskitzeko makina, bai irisgarritasunerako,

bai garbiketarako. Gainera, pantailan kontrola daiteke zenbat hartzen duen bakoitzak, sukarra duen...

Zer adierazten dute emaitzek?

ENDIKA: Edoskitzeko makina baino lehenagoko txahal bat edukitzea gustatuko litzaidake konparaketa egiteko, berehala ahazten baitzaizu lehengoa. Dena den, lehen baino gehiago kontsumitzen dute eta nonbait sartu behar dute esne hori. Gainera, hobeto gaude arnasbideetako patologiarri dagokionez.

Zer alde dago esne kontsumoan?

ENDIKA: Lehen, batez beste, 7-8 litro kontsumitzen zituen bakoitzak. Orain, gehien hartzen duenak 12 hartzen ditu. Aldea da ez dituztela bi tripakadatan hartzen, bakoitzak gogoa duenean baizik. Beraz, digerigarritasuna eta xurgapena askoz hobek izango dira.



→ Espazio zabalak robotaren inguruko eremuetan.



ESPECIALISTAS EN HIGIENE
DE INSTALACIONES Y CUIDADO
DE LA UBRE DESDE 1970.

AHORA TAMBIÉN CON ROBOT.



cygycbiocon.com

OXA
Chemical specialties

**CYGYC
BIOCON**



Esne behien ustiategien etorkizuna jeztea robotizatzea da?

Jorge Eseberri [Albaikideko albaitaria]

Nola eragin dezake esne behien ustiategi baten etorkizuneko aurreikuspenetan jezte sistema automatiko edo robot bat instalatzea?

Zalantzarik gabe, mende hasierako teknologia garrantzitsuenetako bat jezte sistema robotizatua da. Nire iritziz, etxaldeetan sartzeak dakarren inpaktua, jezte sistema konbentzionalak ordeztatzeko gain (gelak edo zirkuituak), berez haratago doan zerbait delako izan da hain esanguratsua. Jezte sistema robotizatuek **ustiategiaren kudeaketa integralaren konzeptu berri bat dakarte**.

Hasierako inbertsioa handia denez eta, gainera, jezte sistema konbentzionalak baino mantentze gastu handiagoak dakartzanez, zentzuzkoa da espero izatea robotak errentagarritasun handiagoa eta abeltzainarentzat zein baserriko langileentzat lan eta bizi baldintza hobekak ekarriko dituen kontraprestazioak egongo direla. Izan ere, jezte sistema robotizatuek ematen dituzten bi abantaila nagusiak, dagoeneko instalatu duten abeltzain askoren ustez, alderdi hauei buruzkoak dira:

- Eskulanari lotutako alderdiak, dela dagoeneko kontratatuta dauden langileen eskuragarritasun

eta malgutasun handiagoari dagokionez, dela jezteari zuzenean lotutako lanetarako behar den eskulana murrizteari dagokionez.

- Esnearen ekoizpena handitzea, behiko/eguneko jezte kopurua handitzen delako, eskulanean kostu gehiagorik eragin gabe.

ESKULANA

Langileen kudeaketa da abeltzainarengan gehien eragiten duen gaia jeztea robotizatzekeko urratsa emateko garaian eta horren arrazoiak hauek dira: prest dauden langileen eskasia eta horiek aurkitzeko zailtasuna, are gehiago kualifikatuak badira, batez ere beste sektore batzuetan enplegu eskaintza handiagoa dagoen eskualdeetan; ustiategietan enplegatuen errota handia eta kostu gero eta handiagoak izatea; prestakuntzarako esfortzuak eta, kasu askotan, hizkuntza desberdinengatik komunikatzeko dagoen zailtasun erantsia.

Baina, zehazki, langiletan zenbat aurrezteko espero daiteke eta zein faktorek zehazten dute aurrezte hori?

Imajina dezagun jezteko dauden 60 behiko ustiategi bat, 5x5 gela batekin. Jezteko aurreikusitako denborak egunean bi ordu eta

erdi inguruak izango lirateke eta jeltzaldi bakoitzaren ondoren gela beste ordu erdiz garbitu beharko litzateke. Egunean langile batek 4 orduko lanaldia egin beharko lukeela esaten ari gara. 60 behi horiek ustiategi estandar batean behiak sistema robotizatu batekin jezten badira, jezteari lotutako lanak egiteko -batez ere atzeratuta dauden behiak hurbiltzea, osasunari lotutako txostenak eta robotaren errendimenduari lotutakoak berrikuszea, robota garbitzea eta egon daitezkeen deiei erantzutea-, egunean ordubete edo 1,5 ordu inguru beharko lirateke.

Wisconsin-Madison Unibertsitatean, 2019an, jezte konbentzionalatik jezte robotizatura igaro ziren 50 abeltzaini buruz egindako azterlan batek erakutsi zuen eskulanean batez beste 0,06 ordu/behi/eguneko aurrezte izan zela edo, ekoizpenaren arabera adierazten badugu, ekoiztitako tona bakoitzeko 2,2 ordu aurrezte zitzutela. Ehunekotan, behi bakoitzeko aurrezte %38koa da, eta ekoizpenari dagokionez %43koa, besteak beste, behiak jezteko sistema robotizatuak esne ekoizpena handitzen duelako egunean egindako jezte kopurua handitzearen ondorioz.

GESTIÓN DE LA RECRÍA

CASETAS PARA TERNEROS

Importadas de Canadá, tanto individuales como colectivas, las **CASETAS** de **AGRI-PLASTIC**, aportan un diseño moderno, práctico, saludable y robusto. Indispensable para una buena crianza de terneras, que garantice un buen desarrollo de la cría.

- *Cumplen ampliamente la reglamentación de bienestar animal.*
- *Acceso fácil para el cuidador.*
- *Amplias y confortables.*
- *Fácilmente lavables.*



Vista interior.

CASETA SL
para terneros con
Rancher System.



CASETA SL
para terneros con
patio galvanizado.



DIMENSIONES CASSETAS SL

Exteriores: 221 cm L x 124 cm W x 140 cm H

Interiores: 201 cm L x 113 cm W x 127 cm H

Peso: 61 kg

DIMENSIONES CASSETAS COLECTIVAS

Exteriores: 226 cm L x 269 cm W x 200 cm H

Interiores: 206 cm L x 254 cm W x 191 cm H

Peso: 113 kg

CASETAS COLECTIVAS para agrupar de 5 a 8 terneros.



Albaitaritz

INFORMACIÓN Y PEDIDOS:

www.albaitaritz.com

Tel.: 948 500 343

info@albaitaritz.com

Aztertutako ustategietan alde nabarmena antzeman zen robota instalatu aurretik erabilitako jezte sistemaren arabera behar den eskulanaren murrizketari dagokionez: gelan jezten zutenek 1,7 orduko murrizketa lortu zuten tonako eta zirkuituan jezten zutenek, berriz, 3,4 orduko murrizketa tonako. (Simon Jette Nantel).




Gainera, robota instalatzearekin batera, borondatezko jezte automatiko batek eskatzen dituen beharretara hobeto egokitutako instalazio berriak erakitzea ekarri bazuen, aldeak handiagoak izan ziren robotak jada erakita zeuden nabeetan instalatu ziren lekuetan baino.

Nolanahi ere, oso kontuan izan behar dugu, jezte automatikoa izan arren, eskulana aurreztu arren eta denboran eta lan baldintzetan malgutasuna hobetu arren, giza osagaiak ez duela protagonismorik galtzen eta funtsezkoa dela jezte sistema horien funtzionamendua egokia izan dadin eta errendimendurik handiena lor dezan. Robota ez dago betebeharretatik libre, fisikoki errazago eta arinago erabiltzen da, baina mentalki estresagarriago izan daiteke.

EKOIZPENA HANDITZEA

Jezte sistema robotizatu bat instalatzea **aukera** bat da behi bakoitzeko **ekoizpena handitze-ko**, behiak egunero jezten diren aldi kopurua handitzen delako, jezte kopuru horri lotutako eskulanaren gastu gehiagorik sortu gabe.

Jezteko tarteak 12 ordutik 8 ordura murrizteak ekoizpena %15 eta %20 artean handitzea dakar, eta 6 orduko tartera murriztea 8 ordura murriztuta baino %7 gehiago izango litzateke, behiak tarte erregularretan jezten badira (12, 8 eta 6 ordu), hau da, egunean bi, hiru edo lau jertzaldi, azterlan askok erakusten duten



bezala. Hori gertatzen da errapeko esnearen **ekoizpen tasa** ez delako berdina bi jertzaldiaren artean igarotzen den denboran zehar, jetzi osteko lehen ordue-

tan esne gehiago ekoizten baita, eta tasa hori denborak aurrera egin ahala murrizten baita.

Nunca bajas
la guardia
frente a los
coccidios
con Vecoxan®



Vecoxan® 2,5 mg/ml

DICLAZURILO

VECOXAN® (Diclazurilo)
es una suspensión oral
indicada para la prevención
de la coccidiosis en terneros
y corderos.



Interrumpe el
ciclo del coccidio
y la excreción de
ooquistes*



Permite el desarrollo de
inmunidad natural en
la recría, protegiendo al
rebaño en reinfecciones^{1,2}



Sin periodo
de retirada



Sin limitaciones de
uso por edad/peso



Dosis única,
fácil de administrar

CONSULTA LA
FICHA TÉCNICA
DE VECOXAN®



1. Agneessens et al.: Build up of immunity after a diclazuril (Vecoxan®) treatment in calves, poster at the World Buiatrics Congress, Nice, France, October 15-19, 2006.
2. Taylor et al.: Dose response effects of diclazuril against pathogenic, species of ovine coccidia and the development of protective immunity, Veterinary Parasitology 2011; 178: 48-57.

*Durante aproximadamente 2 semanas



En caso de duda, consulte a su veterinario.



Jezte robotizatua borondatezkoa dela kontuan hartuta, gelako jezte erregular batetik tarte irregularreko jezte robotizatura igarotzen bada, ekoizpen bera lortzeko, robotean egunean gutxienez 2,3-2,4 jetzialdi lortu beharko liriateke batez beste. Gelan 8 orduko tarte erregularreko 3 jetzialdi egitetik jezte robotizatura igarotzen bada, robot bidezko ekoizpena egunean batez beste 3,1-3,2 jezte egiten direnean berdinduko litzateke.

Jezte robotizatua duten etxaldeen helburu nagusia behiak robotera **joatea** lortzea da. Guk (abeltzainak eta teknikariak) laguntzak maximizatzen saiatu behar dugu, behiak robotera joan nahi eta ahal izan dezan. Horrela, posible izango da, jezteko baimenen konfigurazioei esker, behiak edoskitze unearen eta ekoizpen mailaren arabera aldi optimoen kopuruan jezte lortzea eta, gainera, elikatzeeko estrategia ia indibiduala aplikatzeko aukera izango genuke, robotaren efizientzia optimizatu ahal izateko.

Hurrengo taulan azterlan baten emaitzak erakusten dira, non bi edoskitze epetan esnearen ekoizpenaren batezbestekoa konparatzen den (1. aldia: edoskitzearen lehen 10 asteak, eta 2. aldia: ondorengo 30 asteak), behiak bi aldi horietako bakoitzean egunean maiztasun desberdinekin jezten direlarik (altua: 3 jetzialdi, eta baxua: 2,5 jetzialdi).

JEZTEKO MAIZTASUNA

1. ALDIA: 1. ASTETIK 10. ASTERA

2. ALDIA: 11. ASTETIK 40. ASTERA

	1. ALDIA - 2. ALDIA ALTUA - ALTUA	1. ALDIA - 2. ALDIA ALTUA - BAXUA	1. ALDIA - 2. ALDIA BAXUA - ALTUA	1. ALDIA - 2. ALDIA BAXUA - BAXUA
PRIMIPAROEN EKOIZPENA	29,2	27	26,4	25
MULTIPAROEN EKOIZPENA	33,2	30,5	31,1	29,4

Lehenik eta behin, ikusten dugu jezteko maiztasun handiak ekoizpen handiagoekin lotzen direla, edoskitze unea edozein dela ere. Bigarrenik, argi geratzen da edoskitzearen hasierako jezte maiztasun txikia ez dela erabat konpensatzen edoskitze puntu gorenen ostean jezte maiztasuna igotzen denean. Beraz, ondorioztatzen dugu edoskitze puntu gorena maximizatzeko eta ekoizpenaren jasangarritasuna optimizatzeko interesgarriena dela jetzialdi kopurua edoskitzearen hasieran handitzea. Korrelazio handia dago jetzialdi kopuruaren eta errapeko ehun glandularren dinamika zelularren artean, bereziki zelula jariatzaileen ugaltze tasari, horien ezaugarriari eta jariatze ahalmenari dagokienez.




ROBOTA ETA ERRAPEAREN OSASUNA


Robotarekin jezteak mamitis gehiago edo zelula zenbaketa altuagoak eragiten ditu?

Jezte sistema robotizatu batera aldatzeko planteatzen den kezka handienetako bat da horrek errapearen osasuna okertzea ekar dezakeen; hau da, jezteko robotek mamitis gehiago eta zelula somatiko gehiago zenbatzea eragiten duten. Nire iritziz, eta azken urte hauetan jezte gelatik robotetarako trantsizioa egin duten hainbat ustiategi aztertu ondoren, ezetz erantzun behar dut, nahiz eta azalpen batzuk egitea komeni den.

Hainbat azterlan dira, batzuk agian nahiko zaharkituak, jezteko robot baten instalazioaren eta errapearen osasun parametroen narriaduraren arteko harremana erakusten dutenak, 2a. irudiak erakusten duen bezala, zeinean 2008an trantsizioko behien zelula somatikoen zenbaketek (ZSZ) nola eboluzionatzen duten ikusten dugun. Hala ere, gaur egun, eta sektorean hogeita hamar urte baino gehiago jardun ondoren, uste dut denok eboluzionatu dugula eta hobeto ezagutzen ditugula behien eta robotarekin arteko interakzioan eragiten duten faktoreak, ondorio horiek minimoak izan daitezen eta, nolahi ere, aldi baterakoak direla eta pasatuko direla ziurta dezaket, behiek erabat desberdina den jezte sistema batera egokitzeko derrigorrezko aldia gaingitu ondoren; horrek, gainera, aldaketa esanguratsua dakar haien portaeran eta errutinetan, beti ordu jakin batzuetan jeztetik, borondatez eta libreki jeztera igarotzen baitira, 2b. irudian ikus dezakegunez (gelatik roboterako trantsizioan dauden behien ZSZen bilakaera, 2019an: trantsizioaren ondoren igoera oso txiki bat egon zen, eta hilabete gutxiren buruan hasierako balioetara itzuli ziren).



2a. irudia. irudia. ZSZen bilakaera, jezte sistema robotizatu bat instalatu baino 10 hilabete lehenago eta ondoren. 2008ko azterlana.



2b. irudia. ZSZen bilakaera, jezte sistema robotizatu bat instalatu baino 10 hilabete lehenago eta ondoren. 2019ko azterlana.

2. irudia. ZSZen narriadura ontziratu gabeko esnean (1000 zelula/ml), jezte sistema automatiko baterako trantsizioan dauden esne behi holandarrretan, jezte sistema konbentzional bat duten behi taldeekin alderatuta, trantsizio urtearen arabera (2008 eta 2019) (Van den Borne et al., 2021).



Robotarekin gelan baino arrisku handiagoa ekar dezaketen inguruabar batzuk agertzen dira. Aipa ditzagun elkartutako arrisku batzuk:

- Titiburuaren higiena automatikoa da, hau da, ez dago jezearen gainbegiratzerik, eta behi guztiak berdin tratatzen dira, jetzi aurretik titiburua zikin edo garbi dagoen kontuan hartu gabe.

- Maiztasuna handitzearen ondorioz, titiburuak eraso fisiko handiagoa jasaten du (hutsa egiten da, pultsazioak), baita kimikoa ere (garbiketa produktua), eta horrek titiburuaren eta larruazalaren osasunari eragin diezaioke.

- Jetzialdi batetik besterako tartea murriztean, titiburuak aurreko jetzialditik suspertzeko duen denbora ere murrizten da eta, ondorioz, baliteke titiburuaren esfinterren erabat ez ixtea. Ezin dugunez kontrolatu behia jetzi ondoren denbora tarte batez zutik egotea, jezteko leku, janleku eta kubikuluaren arteko trantsizioa librea denez, arrisku handiagoa dago ingurunekeo patogenoak titiburuaren esfinterretik sartzeko.

- Robot bakar batek animalia kopuru oso handia jezten du eta horrek elkarren artean kutsatzeko arrisku handia ekar dezake. Hala ere, arrisku hori murrizteko, robotek jetzialdien artean titi babesak desinfektatzeko sistemak dituzte eta funtsezkoa da horiek behar bezala funtzionatzea.

Nolanahi ere, robotak abantaila handiak dakartza jezte konbentzionalarekin alderatuta. Ikus ditzagun batzuk:

- Jezteko errutina etengabea da, beti berdina, eta behiak beren borondatez sartzten dira jeztera; beraz, esnearen estimulazio eta etorrera oso eraginkorra eta esne fluxu optimoak lortzen ditugu; horrek jezte denbora minimizatzea ahalbidetzen du. Horrela, titiburuak denbora gutxiago egoten dira jezte baldintzen eraginpean eta lesiorako arriskua murrizten da.

- Jeztea errape laurdenka da. Horrek bi abantaila ditu. Bukae-ran ez dago gainjezterik, gailua errape laurden bakoitzeko kentzen denez, laurden batean

besteetan baino polikiago jezten bada besteetan ez delako gehiegizko jezterik egiten. Eta, bigarrenik, ez da esnearen inpakturik gertatzen, izan ere, titi babesean airea sartzen bada, ez ditugu ikusiko gelako jezte unitate baten kolektoreetan ikusten ditugun turbulentsiak, oso arriskuak direnak, behi beraren titiburu batetik bestera bakterioak transmititu daitezkeelako.

- Robotek jetzialdi bakoitzaren ezaugarriei buruzko informazio asko ematen dute. Ekoiztako litroak, jetzialdiaren iraupena, robotean zenbat pentsu kilo kontsumitu diren... baina baita errapearen osasun parametroak ere, hala nola laurden bakoitzaren eroankortasuna, laurden bakoitzaren ekoizpena, esnearen kolore eta tenperatura. Azken belaunaldikoek zelula somatiko-koen zenbaketen berri ematen duten gailuak ere badituzte eta, beraz, errapeko osasun arazoak dituzten animaliak berehala identifikatzen dira, horrek bilakaeraren jarraipena egiteko aukera emanez.



Planifica un programa sanitario de rápida respuesta inmune

Rispoval®
IntraNasal
RS + Pi3

RISPOVAL® RS-PI3 INTRANASAL: La vacunación intranasal desencadena inmunidad local y sistémica de forma muy rápida y eficaz con 1 sola dosis.



▶ Escanee el QR para acceder a la ficha técnica. En caso de duda, consulte a su veterinario.

zoetis



Hiperinflazioa Argentinan

Herrialdeak jasaten duen hiperinflazioaren eta bertako monetaren prezioak duen aldakortasunaren ondorioz, salneurriak oso aldakorak dira. Izenburuan adierazten duguna 2023ko abuztuko da, nahiz eta sei hilabete eskas lehenago kanaleko kiloak 1,00 €-an egon.

Argentina gaur: Angus kanal kiloak 1,80 €-an

Alejandro Pivotto, elkarrizketa. Haragi-behiak (Angus).

Alejandro Pivotto, 47 urteko nekazaritza ingeniaria ikasketaz, Vicuña Mackennan-ekoa da jaiotzez, eta bertan bizi da, Cordobako probintzian (Argentina). Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizlea da eta Angus arrazako 1.000 behi ama eta gizendegi bat dauzka. Europara egin duen bidaia aprobetxatu dugu elkarrizketa egiteko eta Argentinako haragitarako behien batez besteko etxalde baten kudeaketarekin konparazioa egiteko.

Kudeaketa

Nola kudeatzen duzue hazkuntza etxaldean?

Kumeak mendi eta larre naturalako landetan hazten dira; gero hiru hilabetez egoten dira (azaroa, abendua eta urtarrila), Angus arrazako zezenekin. Bigantxak 19 hilabeterekin intseminatzen dira Angus eta Limangus genetikarekin.

Erditze garaia, orduan, neguan?

Negua ondoan, abuztuan, irailan eta urrian, landa naturalak bazka ematen hasten direnean. Animalari sei hilabete ingururekin eta 160-180 kilo daukanean kentzen zaio titia.

Eta gero?

Titia kendu diogun animalia berdatzen hasitako zekale eta olo sailalara eramaten dugu apiriletik irailera, gero negua pasatzeko. Animalia horrek egunean 700 gramo hartu behar du batez beste, gaudu asko estutu gabe.

Hurrengo pausoa?

Udaberria hasten da eta larre asko sortzen hasten dira luzerna belardietan eta udan berdatzen hasitako bazka basarto eta artatxiki iletsuko [Setaria italica] sailetan. Animaliak hiruzpalau hilabetez egoten dira bertan eta abere bakoitzak 800 gramo inguru hartzen du egunean.

Eta gero, gizendegian, zenbat denbora?

90 eta 130 egun bitartean. 500-550 kilo inguru hartu eta 24 hilabetera iritsi gabe.

Zein pisutara iristen dira kanalean?

Kanal erdia 150-170 kiloko da.

Zergatik Angus?

Argentinako arraza tradizionala da. Hobekuntza genetiko handia egin da arrazarekin, batez ere beltzarekin, gorriarekin baino gehiago. Argentinaren barne merkatua oso indartsua da. Argentinarrak behi haragi asko jaten dugu tradizioz.

ETXALDEAREN FITXA

Guztira 5.000 buru, 3 eremutan banatuta:

1. 5.000 hektarea mendi, hazkuntzarako 1.000 behi-amarekin.
2. 5.000 hektarea. Mendiaren zati handi bat txarra da, abereentzako harmen gutxikoa. Eremu ereingarrian luzerna, bazka basartoa, silorako artoa eta erreserbetarako belardiak ekoizten ditugu.
3. 1.500 hektarea. Zerealen ekoizpena eta gizendegia.





Zenbat metro estalki daukazue?

Bat ere ez. Ez daukagu nabarik. Gure negua lehorra eta hotza da, baina elurrik gabea. Animaliek ondo pasatzen dute negua aire zabalean. Angus arraza oso ondo egokituta dago klima horretara.

Horrek zer esan nahi du, ez dauka- zuela azpiegituretan inbertitzeko beharrik?

Beno, oraintxe bertan gizendegia eraberritzen ari gara, baina txerri haztegi batekin alderatuta, adibidez, gure azpiegitura beharra askoz ere txikiagoa da. Hala ere, asko kostatzen zaigu inbertsioaren dirua berreskuratzea.

Gizendegia ere aire zabalean dago?

Bai, dena dago aire zabalean.

«Hobekuntza genetiko handia egin da arrazarekin, batez ere beltzarekin, gorriarekin baino gehiago»

Familia ustiategia

“Etxaldea familiarena da. Gure aitak lanean jarraitzen du. Bi anaia eta bi ahizpa gara. Ahizpa biek ekonomia zientziak ikasi zituzten. Administrazio gaiez arduratzen dira. Anaia biok ingeniari agronomoak gara eta bakoitza arlo batez arduratzen da.

Anaia hazkuntzaz eta berrazkuntzaz arduratzen da, eta ni, berriz, bigarren berrazkuntzaz eta gizendegiaz. Ni 2003an hasi nintzen familiaren etxaldean, 30 urte baino gutxiagorekin

Argentinan, gurea, tamaina ertaineko ustiategia da”.

Merkaturatzea

Nola eramaten dituzue animaliak merkatura?

Bitartekari baten bidez hozkailura eramaten ditugu. Kontuan izan behar da garraioak eragin handia duela prezioan, distantziak handiak direlako eta errepideak askotan eskasak direlako.

Nork ordaintzen ditu garraio kostu horiek?

Normalean ekoizleok hartzen ditugu geure gain hozkailuan jarritako ganaduaren prezioa, baina badago etxaldean jarritako prezioa negoziatzeko aukera ere.

Bitartekaria aldatu ohi duzu?

Ez, normalean abeltzainarekin urte asko daraman jendea da. Harreman hurbila dago. Gure kasuan behintzat %3 inguru hartzen du beretzat. Hala ere, ordainketetan, konfiantza handiagoa dago bitartekariarekin hozkailuarekin baino. Hozkailuan ez ordaintzeko dagoen arriskua bitartekariak hartzen du bere gain.

Zenbat haragi esportatzen du Argentinak?

Haragiaren esportazioak beti jasan izan ditu gobernuaren politiken etengabeko aldaketak. Guk barneko zein kanpoko merkaturako aberea hazten dugu, 500-550 kilokoa, baina Argentinan kontsumitzen den batez besteko pisua 350-400 kilokoa da pisu bizian. Haragiaren %80 barne kontsumo horretara doa eta gainerrako %20a esportaziora.

Nora esportatzen duzue?

Esportazioaren ohiko merkatuak Europar Batasuna eta Estatu Batuak dira. Animalia handiagoa bilatzen dute, tamaina handiagoko mozketak dituenak. Gure mozketa batzuk esportaziora ere irits daitezke, baina gehienak Argentinan geratzen dira.

Haragi merkea argentinarentzat

“Gobernuek beti nahi izan dute haragi merkea barne merkatu-rako. Merkatuak gorantz egiten duenean gobernuak esku hartzen du haragia garestitu ez dadin. Azken 50 urteetako gobernu guztiek egin dute hori.

Politika horien ondorioz, Argentinako abeltzaintza negozioa ez da inoiz distiratsua izan. Hala ere, jendea bokazioz da abeltzain, gure aitaren kasuan bezala, eta kosta egiten zaio lanbidea uztea, askotan dirua galtzen badu ere”.

Zuen behiek ekoizten dutenarekin hornitzen duzue gizendegia?

Ez, animalia asko erosten ditugu gizendegirako, gure hazkuntzarekin ekoizten ditugunak baino askoz gehiago. 1.000 ama dira, baina 5.000 abelburu ditugu hazkuntza eta gizendegia kontuan hartuta.

Belaunaldi erreleborako arazorik badaukazue?

Beno, norbera buruz ondo egoteko modurik egokiena gustatzen zaiona egitea da eta inoiz ez erretiratzea.

Zer prezio ordaintzen dizuete Angus haragi kilo baten truke?

Une honetan, gaur egungo kanbioan, eta hori oso aldakorra da Argentinan, kanaleko kiloa 1,80 €-an dago [2023ko abuztua]. Duela 6 hilabete 1,00 €-an ze goen kiloa.

«Argentinan Angus arraza tradizionala da eta hobekuntza genetiko nabarmena egin da»

Zenbat langile daukazue kontratatuta?

Kudeaketaz arduratzen garen familiako lauz gain, 18 pertsona daukagu kontratupean hiru eremu-erako.





Esne litroa 0,15 €-an ari gara saltzen

Andrea Passerini, elkarrizketa. Esne-behiak.

Andrea Passerini (54 urte) berandu hasi zen abeltzaintzan. Aurretik politika arloan ibili zen, hainbat kargu publikoren aholkulari gisa. Izan ere, zientzia politikoan eta soziologia ekonomikoan trebatu izanak horretara zeraman. Abeltzaintza ez zen haren helmuga... berez.

Passeriniaren esne ustiategia Pampa hezean dago, Buenos Aires probintziaren mendebaldean, Pampa probintziatik gertu. Hainbeste inplikatu da familia etxalde horretan, ez duela gremio elkarteetan bere ekarpena egiteko aukera pasatzen utzi.

Nola hasi zinen etxaldearekin?

Lehen lursailtxoa aitaren aldeko aitonak, Jose Luis Passerini, erosi zuen eta, denborarekin, aita lursaila handituz joan zen pixkanaka. Haragitarako abeltzaintza ustiategi bat zen. Esne ekoizpenarena gerora etorri zen, hileko diru sarreraren iturri osagarri gisa. Horixe kontatu zigun aitak.

Zer lursail daukazu orain?

800 hektarea jabetzan eta ia 500 errentan.

Lanean hasi zinenean, ustiategiak dimentsio hori zeukan jadanik?

Ni une kritikoan sartu nintzen, gure aitak eta haren arreba -gure izebak- sozietatea banatu berri zutelako. Egoera tamalgarrria zen. 2003an izan zen. Garai hartan izugarritzko uholdeak izan ziren eta zorretan sartu berriak ginen, "peso bat dolar baten tru-

ke" delakoa ezarri zen garaian, non peso bat dolar baten balio-kidea baitzen. Zor hura ordainezina zen.

Zer egin zenuen?

Gure aita etxaldea administratzen zuen batekin elkartu zen, baina pertsona hura ez zen oso zintzoa. Ni kudeaketan barnerraten nintzen heinean, gero eta "gauzatxo" gehiago aurkitzen nituen eta, hola, aita azkenean ohartu zen hobe zela administratzailea ni izatea. Kosta zitzaien, baina konklusio horretara iritsi zen.

Zein momentutatik aurrera hartu zenuen kontrola?

Auzi luzea izan genuen aipatutako gizon harekin. Praktikan, 2005-2006tik hasi ginen kudeaketa lanetan, baina legez 2007ra arte itxaron behar izan genuen.

Deskribatu nolakoa zen ustiategia kontrola hartu zenuenean.

Zerotik hasia bezala izan zen. 200 behi baino gutxiago ziren, arduraduna erretiratzeaz zegoen gizon bat zen...

Zer egin zenuen?

Jende berriaz osatutako talde batekin hasi nintzen. Gaur egun bertan jarraitzen dute gehienek. Uste dut horixe dela egin dudana onena, talde hori osatzea. Lur-sailean badauzkat pertsona batzuk nire eskuineko eskua, ezkerreko eskua, eskuineko oina eta ezkerreko oina direnak. Konfiantza osoa daukat haiengan.

Zer inbertsio egin zenuen?

Instalazio berriak, bigantxa ume-dunak erostea, genetika berrikustea, jezteko gela berria... Eta hazi egin ginen.

USTIATEGIAREN FITXA

Jezteko behiak: 500.

Buruak: 1.200.

Arrak baserrian bertan hazi eta hiltzen dira, 380-400 kilorekin haragitan saltzeko. Esportaziorako haragia (Hilton kuota): premium mozketen haragia da, Europar Batasunarentzat. Abereak larrean bazkatuta hazi behar dira; ezin zaie pentsu komertzialik eman.

Lursailak: 1.300 hectáreas.

Esnea eta haragia

Zure diru sarreraren zer ehuneko dakar haragitarako arrak saltzeko?

Ez da %10era iristen. Kontuan izan nik hazi sexatuz intseminatzen dudala.

Asko gustatzen zait hazi sexatuaren gaia.

Bigantxa guztiak eta behi batzuk hazi sexatuz intseminatzen ditugu. Horren ondorioz, %15 txahal eme gehiago daukat arrak baino.

Ekoizten dauden behien kopurua handitzeko helburuarekin?

Egia esan, daukadan espazioarekin ezin dut 550-580 behi baino gehiago ekoizten jarri.

Zezen genomikoak erabiltzen dituzu?

Oraindik ez. Asmoa saldo osoa genotipatzea da, bai esne bai haragi ekoizpena optimizatzeke. Uste dut merezi duela hori egitea. Egoera meteorologikoa eta politikoa egonkortu bezain laster eragingo dugu.

Eta haragitarako arrazen hazia erabiltzea pentsatu duzu?

Zorroan daukat, genotipatua bezala.

Garaipen bat epaitegietan

“Epaiketa bat irabazi berri diot nire herriko udalari, errepideak mantentzeko zerbitzuak ez emateagatik, horretarako ordaintzen ditut-eta zerga espezifikoak.

5. Bide Nazionaletik nire etxalderaino 30 kilometro lur daude, lur hutsa, eta lur hori urez betetzen denean malabarismoak egin behar dira esnea ateratzeko.

2012-2013ko uholdeen ondoren salatu nuen egoera. Erabat isolatuta geratu ginen, inolako arretarik gabe, eta udalerrriak, gainera, lurreko komunikazio bideen mantentze lanak ordaintzeko eskatu zigun. Trauma bat izan zen.

Orain, errepikapeneko epaiketa deritzonari aurre egin beharko diot, kalteak ordain diezazkizaten; hala ere, abokatuak esan dit bi urte gehiago beharko direla horretarako.”

«Asmoa saldo osoa genotipatzea da, bai esne bai haragi ekoizpena optimizatzeke»



Azpiegitura eta ekoizpena

Ba al duzu estalkirik etxaldean?

Ez. Behiak luzerna, arrauka, garagar eta abarretan bazkatzen dira. Bazkarik ez dagoenean, aire zabaleko loteetan ixten ditugu. Lollobelar asko daukagu neguan, lehorteak eragozten ez badu behintzat. Gure klima oso onbera da.

Zer ezaugarri dauzka jezte gelak?

24 puntu ditu (12x2), lau pertsona jertzialdi bakoitzeko. Hiru titiburuetakoa jartzen eta beste bat behiak sarrarazten eta irten arazten. Beste pertsona bat ere badaukagu, behizaina, normalean zaldi gainean behien bila joaten dena jezteko gelara ekartzeko. 21.500 litroko hotzeko depositu bat daukagu.

Jeztean pentsua jartzen diezu?

Bai, jakina, elikagai orekatuaren zortzi kilo buruko. Anoa horren formula aldatuz joaten da egocera meteorologikoaren eta unean uneko lehengaien arabera.

Zenbat arto-silo behar duzu urtean 550 behintzat?

5.500-6.000 tona inguru urtean. Artoa otsailean xehetzen dut eta lursail horretan llolobelarra ereiten dut automatikoki.

Zein da behi bakoitzaren ekoizpena eguneko?

Urtean zehar, 30/33 litro da batez beste. Une honetan, egunean 34 litro behi bakoitzeko. **[Behi bakoitzak batez beste egunean Argentinan: 24 litro].**

Ekoizpen estentsiboan?!

Bai, bi jezte eginda.

Ikaragarria da.

Pixkanaka lortuz joan ginen. Gure enpresak, La Arboledak, urteko ekoizlearen saria lortu zuen 2020an. Egunean 30 litroa iritsi ginen batez beste. Hortik aurrera, urtetik urtera ekoizpena pixka bat handitzen dugu.

Zenbat solidorekin?

Bi urte dira %4,00 gantz eta %3,70 proteina inguruan dabilela. Oso ehuneko handiak dira ekoizpen eredu horretarako.

Horretarako eta edozeinetarako.

Behiak oso osasuntsu daude eta hori nabaritzen da.

Ondo doakizu, e?

Larrearekin bakarrik ekoiztea askoz merkeagoa da; sistema askoz ere jasangarriagoa da ekonomiaren eta finantzen ikuspegitik eta horrek berebiziko garrantzia dauka Argentinan.

Deskribatu lantaldea.

Lau albaitariren eta ingeniari agronomo baten laguntza daukat. Nutrologoa, esnearen kalitatean aditua den beste albaitaria, klinikoa eta zezenak aukeratzeko dituen genetika aditua.

Eta zenbat pertsona arduratzen dira etxaldea maneiatzeaz?

Hamabi familia daukat landan bizitzen etxaldea zaintzeko. Nik jartzen diet ostatua. Arduradun bati elkartuta dihardut eta beste 14 pertsona lan kontratuarekin dauzkat.

Zenbatean kobratzen ari zarete esne litroa?

0,15 € litroa, gaur egungo kanbioan **[2023ko abuztua]**.







Kontuz oritzarekin

Idazlea: **Javier Zabala** [Albaikideko albaitaria]


Erreferentzia bibliografikoa: Inmunidad bovina: una visión práctica de la inmunología y la vacunología. CHRISTOPHER C.L. Chase eta beste batzuk. HIPRA (2022).


Editoreak lagatako argazkiak; eskertzen diogu adeitasuna.

Jaio ondoren, elikatzeko oritza ematea oso-oso garrantzitsua da. Oritzak amaren antigorputzak, zelula immunitarioak, leukozitoak, bitaminak, koipeak, entzimak -batzuk antimikrobianoak-, hormonak eta jaioberriaren immunitate sistema garatzeko elementu bitalak transmititzen ditu. Duela gutxiko azterlanek garrantzi handiagoa ematen diete azken osagai horiei.

Egiaztatu da txahalen ehuneko oso altu batean antigorputzen transferentziak huts egin duela. Ikerketa askok jaio osteko lehen 24/48 orduetan 10mg/ml baino maila txikiago bat aipatzen dute. Transferentzia immunitarioan akatsa duten animaliek hilkortasun eta gaixotasunen eragin handiagoa erakusten dute, eta immunitate pasibo egokia du-

tenek baino pisu gutxiago irabazten dute (81gr. eguneko). Hainbat argitalpenek 10 eta 115 euro arteko kostua kalkulatu zuten txahal bakoitzeko. Horregatik, jaioberrien garapenerako funtsezkoa da immunitatearen transferentzia bermatzea, kalitatezko oritza azkar eta modu higienikoan emanez.





TRANSIZIOAN DAUDEN BEHIEN MANEIOA

Trantsizio aldian dagoen behiaren funtzio immunitarioa oso aldakorra da. Aldakortasun hori faktore genetiko, ingurumeneko edo dietetikoengatik zein produktu farmakologikoak erabiltzeagatik gertatzen da.

Erditu baino bi-lau aste lehenago, amaren serumetik orritzera IgG1 garraiatzen hasten da modu aktiboan. Oritzeko antigorputzen tituluak serumekoena baino 10-40 aldiz handiagoak dira. Arrazoi horiengatik, denbora horretan oso garrantzitsua da prestaketa, maneioa, elikadura eta zaintza.

Behiari eragiten dioten faktoreak

- **Genetikoak:** Genomika. Harremana dago lotura genomikoen eta erantzun immunitarioaren artean.

• Amaren arraza: Jersey arrazak IgG maila altuagoak izateko joera du, oritz bolumen txikiagoa duelako.

- **Inguruneak:** ukuilu garbiak eta, batez ere, zabalak, bai atsedean gunean, bai elikatze gunean, estresa minimizatzeke.

• Estres termikoa: azterlan batzuek erakusten dute oso eragin negatiboak daudela trantsizioan dagoen behiaren erantzun immunitarioan.

- **Elikadura:** energetikoki dieta orekatuak, proteinan estres metabolikoa saihesteko, (ehun adiposoaren mobilizazioa) oritza sintetizatzeke funtsezkoak diren aminoazido esentzialen gabezia posiblea saihesteko, baita mineralen eta bitaminen gabezia saihesteko ere (batez ere antioxidatzaileak), eta sistema immunitarioaren eraginkortasunari eta efizientziari eragiten dion estres oxidatiboa kontrolatzeko.

• Kaltzioa: erditu ondoren zelula immunitarioak behar bezala aktibatzeke kaltzio gehiago behar da prozesu metabolikoak garatzeko behar dena baino.

• Gehigarriak: produktu jakin batzuk emateak immunitatea modulatu dezake trantsizioan dauden behietan.

- **Txertoak:** erditu aurreko txertaketa oso eraginkorra da gaixotasunek behian (mastitisa eta beste prozesu batzuk) zein kumeetan (beherakoak eta beste gaixotasun batzuk) duten eragina murrizteke. Komenigarria da erditzeke aurreikusitako data

baino 6-3 aste lehenago egitea, antigorputzak sintetizatuta egon daitezela oritza sortzen hasi aurretik.

- **Lehorraldiaren iraupena:** 5 aste baino gutxiagoko lehorraldiek oritzaren kalitatea murriztu dezakete.

- **Amaren adina:** behirik zaharrenek, oro har, kalitate hobeko oritza izaten dute, gaixotasunarekiko esposizio handiagoa izan dutelako. Hala ere, bigantxa batzuek kalitate handiko oritza ekoizten dute; horregatik, baztertu aurretik, kalitatea egiaztatu behar da beti.

- **Zelula zenbaketa altuak:** mastitisa duten eta odol asko duten behien oritzak baztertu egin behar dira edo, gutxienez, odola duten eta infektatuta dauden errape laurdenak bereizi. Garrantzitsua da zelula somatikoen zenbaketa altuak dituzten behietan IgGen kontzentrazioa neurtzea, immunizazio ona ziurtatzeko.

- **Erditze goiztiarra:** erditze goiztiarra duten behiek (induzituta edo modu naturalean), oro har IgG maila txikiagoa duen oritza ekoizten dute.

ERDITZEA

Erditu ondoren, berandu baino lehen jetzi behar da. Erditu eta lau ordu geroago dagoeneko hasten da oritzeko immunoglobulinaren kontzentrazioa murrizten. 6 ordu geroago %17 jaitsi da, 10 ordu geroago %27 eta 14 ordu geroago %33.



Lehen jetzaldian oritzaren bolumen altu batek (8,5 litrotik gora) adierazi dezake kalitatea txikiagoa dela, baina bota aurretik egiaztatu egin behar da. Jetzaldi horren higieena, bai errapeak garbitzea, bai jezteko, biltegitratzeko eta administrazioko ekipoa garbitzea (zundak, tetinak, kuboak, etab.), oso-oso zorrotza izan behar da, kutsadurak immunoglobulinaren transmisioa murrizten duelako.

ORITZAREN MANEIOA


Kalitatea

Oritzaren kalitatea begiz zehaztea ez da oso gomendagarria; beti da hobe neurtzea. Kalitatea neurtzeko hainbat modu daude:

- kalostrometroarekin: metodoa ez da oso zehatza, honela sailkatzen du: ona (>100), normala (100-50) edo txarra (<50).

- Brixen errefraktometroarekin: oritzetik ateratzen den Brix graduen balioaren arabera, sailkapena ona (>23), normala (23-20) eta txarra (<20) izan daiteke. 20 baino gutxiagoko balioak dituzten oritzak baztertu egin behar dira, eta ez erabili animalien lehen hartualdian. Kalitate handiagoko oritzik ez

badago, saiatu bolumen handiagoa emanda kontzentratzen.



Higieena

Maneiuaren higieena oso-oso zorrotza izan behar da. Kutsadura bakterianoa 100.000 (UFC)/ml baino gutxiago izan behar da guztizko bakterioetara, eta 10.000 (UFC)/ml koliformeetarako. IgG eta mikrobioak traktu gastrointestinalaren barruan lotzeak fisikoki blokeatzen ditu immunoglobulina molekulak xurgatzeko kanalak eta enterozitoen bidez atzitzea. Bakterio patogenoak hesteetako zeluletan itsasten dira eta kaltetzen ditu, eta horrek esan nahi du iragazkortasuna murriztu egiten dela, hesteetako itxiera azeleratua eraginez.

Kutsadura bakterianoetan, halaber, txahalaren patogeno espezifikoak egon daitezke, hainbat gaixotasun eragiten dituztenak: E. coli, Salmonella mota batzuk, edo Mycodeteterium avium subsp. paratuberculosis bezalako mikosi mota batzuk. Kutsadura horrek txahalak infekzio bat izateko arriskua eragin dezake animalia bereziki sentikorra den une batean, bere sistema immunarearen heldugabetasunaren ondorioz.

Garrantzitsua da esatea 20°C-tan bakterioak 20 minutuan behin bikoiztu egiten direla. Ondorioz, jetzi eta berehala, hoztu, izoztu edo pasteurizatu behar da, betiere kontaktu azalera handia duten ontzietan, bakterioak hazteko denbora murrizteko. Oso garrantzitsua da ontziak itxia, baita aldi baterako biltegitratzen direnean ere.


Azkartasuna

Jaio eta berehala eman behar zaio oritza txahalari. Mantenu-gaiez gain, amaren antigorputzak, zelula immunitarioak eta txahalaren garapen immunitarioak beste osagai garrantzitsu batzuk ematen ditu. Prozesu honen eraginkortasuna azkar murrizten da jaio ondoren eta gehieneko xurgapena lehen lau orduetan izaten da. Jaio eta 24 eta 36 ordura, hesteak itxi eta ez dituzte makromolekula horiek xurgatzen.



Kantitatea

Neurri zuzena da pisu biziaren %10 ematea. 40 kg-ko animalia batentzat 4 litro eman behar dira lirategi. Neurri hori kalitate oneko, kutsadurarik gabeko eta erditu osteko lehen orduetan emandako oritzerako izango litzateke. Bestela, dosiak handitu behar ditugu. 6/12 ordu igaro ondoren, 2 litro hartzeak animalia immunitate egoera hobetzen du, egin berri diren ikerketek erakusten dutenez. Oso garrantzitsua da behar besteko kantitatea hartzen dela ziurtatzea.



Que otros no rompan lo que hay entre nosotros



Escanéame para
la reconciliación



HIPRABOVIS® IBR MARKER LIVE BALANCE

HIPRABOVIS® IBR MARKER LIVE. Liofilizado y disolvente en suspensión inyectable para bovino. **COMPOSICIÓN:** Cada dosis de 2 ml contiene: Liofilizado: Herpes Virus Bovino tipo 1 vivo con delección genética doble gE- tk- (BoHV-1), cepa CEDDEL: 10_{6,3} - 10_{7,3} DICC₅₀. **Disolvente:** Disolución tampón de fosfato. Especies de destino: Bovino (terneros y vacas). **INDICACIONES:** Para la inmunización activa de bovino a partir de los 3 meses frente al Herpes Virus Bovino, tipo 1 (BoHV-1) para reducir los signos clínicos de la Rinotraqueítis bovina infecciosa (IBR) y la excreción del virus de campo. **ESTABLECIMIENTO DE LA INMUNIDAD:** 21 días después del programa de vacunación básico. **DURACIÓN DE LA INMUNIDAD:** 6 meses después del programa de vacunación básico. **PRECAUCIONES ESPECIALES:** Solo se deben vacunar animales sanos. En raras ocasiones se han notificado reacciones de hipersensibilidad, incluida la anafilaxia (a veces fatal). **TITULAR DE LA AUTORIZACIÓN DE COMERCIALIZACIÓN:** Laboratorios Hipra, S.A., Amer (Girona), ESPAÑA. **NÚMEROS DE REGISTRO:** 5 dosis: EU/2/10/114/001. 30 dosis: EU/2/10/114/003.

HIPRABOVIS® BALANCE. Vacuna trivalente frente al virus de la Diarrea Vírica Bovina, el virus de la Parainfluenza tipo 3, y el virus Respiratorio Sincitial Bovino. Liofilizado y suspensión para preparación de suspensión inyectable para bovino. **COMPOSICIÓN POR DOSIS (3 ml): Sustancias activas:** Fracción liofilizada: Virus Respiratorio Sincitial Bovino, vivo atenuado, cepa Lym-56 ≥ 10⁶, CCID₅₀* I *CCID₅₀; Dosis infectiva 50% en cultivo celular. Fracción líquida: Virus de la Parainfluenza-3 inactivado, cepa SF4: IHA* ≥ 16. Virus de la Diarrea Vírica Bovina inactivado, cepa NADL:SN** ≥ 20. * IHA: Título medio de inhibición de la hemaglutinación inducido en conejos (≥ 480 UHA antes de la inactivación). ** SN: Título medio de inhibición de la ser neutralización inducido en conejos (≥ 10₅ DICT₅₀ antes de la inactivación). **INDICACIONES:** Bovinos adultos (vacas y novillas): Prevención de la Diarrea vírica bovina (incluida la enfermedad de las mucosas) (BVD). Terneros: Prevención de la Parainfluenza-3 (PI3), Enfermedad de las mucosas o Diarrea vírica bovina (BVD) y Neumonía por Virus Respiratorio Sincitial Bovino (BRS). Puede utilizarse en cualquier momento durante la gestación y durante la lactancia. **PRECAUCIONES ESPECIALES:** Conservar y transportar entre +2 y +8oC. No congelar. Mantener fuera del alcance de los niños. **NÚMERO DE REGISTRO:** 1907. ESP.

HIPRA

www.hipra.com

ORITZAREN TRATAMENDUAK

1. Pasteurizazioa. Garrantzitsua da ustiategi batzuetan, karga bakteriologikoa murrizteko eta gaixotasun jakin batzuen transmisioa kontrolatzeko. Oso garrantzitsua da denbora kontrolatuta egitea (ordubete), temperatura egokian (60 gradu), kontaktu azalera handia duten ontzietan eta ekipo bereziekin egitea, tratamendua ahalik eta hobekien egiteko, oritzaren zelulak eta beste osagai batzuk suntsitzea minimizatzeko.

2. Izoztea. Pasteurizazioarekin bezala, oritzaren osagai batzuk kaltetu daitezke, baina metodo bikaina da egoera jakin batzuetan oritza eskura edukitzeko eta azkar emateko. Jetzi ondoren ahalik eta azkarren izoztu behar da, bakterioen hazkundera minimizatzeko. Gomendagarria da ontziek kontaktu azalera handia izatea: hobe poltsetan botiletan edo garrafetan baino, eta, azken horiek erabiliz gero, hobe da tamaina txikikoak izatea.

Desiozte oso garrantzitsua da maria bainuan egitea, temperatura ez oso altuan, osagaiak ez kaltetzeko. Prozesu horretan, kontaktu azalera handia duten ontziak edukitzeak azkarrago

egiten laguntzen digu eta nahi ez ditugun bakterio hazkunderak saihesten dira. Temperatura eta mugimendua kontrolatzen duten ekipo bereziek asko hobetzen dute prozesua. Oritza ez da inoiz giroko temperaturan desiozto behar, horrek bakterioak haztea erraztuko lukeelako. Oritza eman aurretik, ongi nahastu eta temperatura egokian jarri behar da; inoiz ez da oritza hotza eman behar.

KONTROLA

Oso baliagarria da analisiak monitorizatzeko, ustiategian oritza emateko lana ondo egiten ari den jakiteko.

Ipar Amerikako aditu talde baten egindako hurrengo taulak IgG mailak (gr/l), proteina seriko totalak (PST), Brix baliokidea eta kontroleko laginketa bat egiten dugunean multzo bakoitzean egon behar den portzentaje optimoa islatzen ditu.

Ustiategi batean, lote bat balaratu ondoren, animalien %10 baino gehiago azken taldean sailkatuta badaude, orizatzearen protokolo osoa berrikusi behar dugu.



	IgG mailak (gr/l)	PST	Brix baliokidea	animalien %
Bikaina	≥25	≥6,2	≥9,4	≥40
Ona	18-24,9	5,8-6,1	8,9-9,3	30
Justu samarra	10-17,9	5,1-5,7	8,1-8,8	20
Txarra	<10	<5,1	<8,1	<10



TRANTSIZIOKO ESNEA

Trantsizioko esnea (TE) 2. eta 6. jatzialdien arteko esnea da. Ustiategi batzuetan galdu egin da lehen asteetan emateko ohitura.

Berriki egindako ikerketek frogatu dutenez, trantsizioko esnez elikatutako animaliek hobeto garatzen dituzte hesteetako bilokak eta epitelio zelularra, osagai nutrazeutikoen ondorioz, eta hazkunde tasa hobea zein osasun datu hobekak dituzten txahalak lortzen dituzte.

Ustiategi batzuetan, maneiu arazoak direla-eta, nahiago izaten dute esnari edo esne ordezkari oritz kantitate txiki bat gehitu. Beste batzuek oritzaren ordezkari bat gehitzen dute hori ez dutenean.

Soluciones de bioseguridad

► Limpieza con DT FOAM®

- Detergente espumante alcalino de superficies
- Se adhiere a paredes verticales
- Espuma muy activa en superficies sucias
- Efecto humectante y desengrasante óptimo
- Apto para ser usado en agricultura ecológica*

► Desinfección con PROPHYL® S

- Eficacia probada en:
 - *Cryptosporidium parvum* y ooquistes de coccidia al 2%
 - Virus, bacterias, micobacterias, hongos y levaduras al 1.5%
- Eficaz en pediluvios en 1 min. y para vehículos en 5 min.
- Activo incluso en presencia de materia orgánica
- Eficacia duradera

Mantenga el alojamiento de sus animales libre de patógenos.

* Según el Reglamento Europeo UE 2016/948.
Prophyl® S es un producto biocida (PT3). Sólo uso profesional. Utilice biocidas de forma segura. Lea siempre la etiqueta y la información del producto antes de usarlo.

HUVEPHARMA N.V.
Uitbreidingsstraat 80 - 2600 Antwerp
Belgium
P +32 3 288 1849
customerservice@huvepharma.com

HUVEPHARMA EOOD
3^a Nikolay Haytov Str. - 1113 Sofia
Bulgaria
P +359 2 862 5334
sales@huvepharma.com



DELTA-LAMBDAREN galera eta abuztuko probak

Miren Sagarzazu [Albaitaritza Genetics]

2023ko uztailaren 3an, ST GENETICSek, *FARNEAR DELTA-LAMBDAREN* jabeak, zezen handi horren heriotzaren berri eman zuen. Hazitarako animalia horrek mundu osoan duen ospea agerikoa da, 11.000 alaba baino gehiago dituelako. ST GENETIC-Seko CEO Juan Morenoren hitzetan: "Arrastoa uzten duten zezen bereziak gutxitan agertzen dira".

Lehiaketetan eta ukuiluetan ikusi da *DELTA-LAMBDAK* bere geneen bidez morfologikoki perfektuak diren errapeak transmititu dituela, ustiategiaren errentagarritasuna handitzeko gai direnak, esne litro kopuru handia sortu baitute.

*DELTA*ren semea, bere genealogian azken 20 urteetako zezen ezagunenetako batzuk ditu: *NUMERO UNO*, *SNOWMAN*, *PLANET*, *SHOTTLE* eta *DURHAM*, besteak beste.

DELTA-LAMBDAREN nagusitasuna 2020ko abuztuan erakutsi zen lehen aldiz, lehen progenie proba jaso zuenean: proba genomikoan baloratutako balio genetikokoak berretsi ziren, alabek erakutsi zituzten ezaugarri bikainei esker. Aditu askok belaualdi zezentzat jotzen dute. Ziur gaude haren alabek eta bilobek datozen urteetan izango duten arrakastaz. Bere legenda genetikokoak bizirik jarraituko du.

2023ko abuztuko probei esker, zezenak balorazioetan katalogatzeko erabiltzen diren proba

genomikoen egiazkotasuna eta fidagarritasuna hauteman eta berretsi ahal izan dugu. *CHARLEN* bi umeren lehenengo progenie proba: *HOLDONEK* eta *BY-PASSEK* hala baieztatu dute; alabek esne ekoizpen bikaina erakutsi dute (+1897 eta +2214). Biak, gainera, ezaugarri funtzionalei eta osasunari dagokienez jaso dituzten balorazio onengatik nabarmentzen dira, +1,4 eta +1,8ko erditze erraztasunarekin eta 5,7ko eta 4,8ko bizitza produktiboarekin, hurrenez hurren.

Zezen genomikoei dagokienez, *Albaitaritza Genetics-en* katalogo berriak zezenen eskaintza zabala du, egon daitezkeen beharrian desberdinen arabera. Azpimarratzekoak dira *QUALITYK* duen esne ekoizpen handia eta errapeen balorazioa; *PIPELINEK* ematen dituen esne litroak

eta robotean jeztean duen jarrerara ezin hobea; *OUTREACHEN* esne ekoizpen handiaren eta solidoen (gantza eta proteina) arteko oreka, eta ezaugarri nagusietan erakusten duen maila harrigarria (+1,82 errapeetan eta +1,19 oinetan eta hanketan).

Horrez gain, zezenetako batzuek zezen taldeko buruetan perfekzio morfologikoa lortu nahi duten abeltzainen desirak ase ditzakete, hala nola: *CASUAL* (+3,89 Tipoa; +3,34 Errapeetan eta +2,49 Oin eta Hanketan) edo *BOOGIE*, zeinak, aparteko osaera izateaz gain (+3,40 Tipoa, +3,20 Errapeetan eta +1,69 Oin eta Hanketan), Amaitzeko, *REAL SYN* nabarmendu behar dugu, +3000tik gorako TPIa duen zezena, *CONAFEREN* balorazio genomikoetan gure zezenik onenetakoa dena, eta *ICON* +1352 puntu lortu dituen.



Una forma más confortable de abordar el secado



PIENSO MINERAL ANIÓNICO

BovikalC® Dry ayuda a mejorar el bienestar y la salud de la ubre

Dos bolos de BovikalC® Dry a las 8-12 horas antes del último ordeño

- Ayudan a reducir la producción de leche¹
- Ayudan a reducir la hinchazón de la ubre¹
- Aumentan el bienestar de las vacas de leche¹
- Ayudan a mejorar la salud de la ubre para prepararse para la siguiente lactación



Bibliografía:

¹ Effects of oral administration of anionic boluses at dry-off on performance and behavior of dairy cattle. G. Maynou, G. Ekoso, J. Bubeck, and A. Bach. J. Dairy Sci. 101:1-12. (2018)

BovikalC® Dry. Pienso mineral aniónico para ayudar a reducir la producción de leche para vacas lecheras al secado, reduciendo la congestión que produce la leche en la ubre. **Composición:** Cloruro de calcio, sulfato de calcio, mangano y diglicéridos de ácidos grasos esterificados con ácido acético. **Aditivos:** Vitamina E3 (36771) 100.000 UI por Kg, Vitamina E (36700) 5.000 UI por kg, Cloruro de amonio (448) 10,4%, Selenio - Se (38) 12 mg por kg. **Especies de destino:** Vacas lecheras al secado. **Posología:** Para administración oral en vacas lecheras al secado. Administrar 2 bolos en el último ordeño o 8-12 horas antes del último ordeño. No administrar más de 4 bolos en 24 horas. **Precauciones:** Si la cobertura del bolo aparece dañada o rota, no administrar el bolo. **Conservación:** Conservar por debajo de 30 °C. El bolo debe mantenerse dentro del envase hasta inmediatamente antes de su uso ya que es susceptible a la humedad ambiental. **Presentación:** 4 bolos de 196 g. **Comercializador:** Boehringer Ingelheim Animal Health España, S.A.U.



HOLM & LAUE passion for calves

CALF EXPERT



Alimentación de terneros más fácil



Más libertad y una mayor flexibilidad laboral.
Análisis de datos a través de la aplicación compatible con la gestión profesional.



Mejor rendimiento de cría gracias a la medición del peso con báscula. Reducción de los costes veterinarios gracias al control automático de los animales y las alarmas.



Promoción de un comportamiento de alimentación natural: múltiples comidas individuales para apoyar el desarrollo saludable de los terneros.

DISTRIBUIDOR:

Albaitaritz

COMERCIAL:

Alberto Benito Tel.: 613078956
alberto@albaitaritz.com

Servicio técnico: 948211940

www.holm-laue.com